

"Deabruaren hiztegia"
Ambrose Bierce
Euskaratzailea: Xabier Olarra
Ibaizabal, 2001

Pelikula bat aipatuko dut gaiarekin zer ikusi zuzena duelako, noski. *Gringo Viejo*, Carlos Fuentesen izen bereko eleberrian oinarritua, non Gregory Peck ikus daitekeen, bere bizitzako azkeneko urteetan esango nuke, "gringo"arena egiten, Mexikoko Iraultza deitu izan dena pil-pilean jarrita dagoen garaian.

Gringoa gizon adintsua da, baina ez erabat zaharra, edo ez dirudi behintzat; gringoak ez du ezertan sinesten, Estatu Batuetatik etorri da Mexikora, baina ez du ezer berririk aurkitu han, gringoak mundu honetatik joan nahi du, abentura usainean; besterik ez.

Gregory Peck-ek pantailan bizia ematen dion gringoa, hain zuzen, Ambrose Bierce zen, Estatu Batuetan egon den (ez dakit benetan bizi ote zen, bizitzaren zentzurik osoenean) idazlerik bitxienetakoak. Idazleak, berez, bitziak eta xeblebre samarrak diren lurraldean, Mark Twain esaterako, ez da meritu makala Ambrose Biercerena. Kazetari izan zen eta artikulu zorrotzak idazten zituen; ez alferrik zuen ongi irabazia "Mikatza" ezizena, mingotsaren fama ere bazuen kazetarien artean: errealtatearen alderik gozoenari jaramonik egin gabe, alde ilun zikin eta gazi-gozoa argitaratzeko grinagatik seguru asko. Ipuinak ere idatzi zituen, eta esan behar da jeneroak eman dituen ipuinik politenetakoak (pare bat behintzat bai) Biercek berak idatzitakoak direla. Ikus bestela gerra zibilari buruzkoak.

Baina euskaraz kaleratu dena bestelako lana da, euskaraz txukun eta dotore kaleratu dena, irakurtzen gozatzeko moduan hain zuzen, liburu bitxia da, jenero batean edo bestean sar ez daitekeena. Hiztegi moduan dago antolatuta, eta hiztegia ere bada, baina ifrentzutik begiratuta.

Hitzaren azpildurak aurkitu ondoren, hitzaren esanahiari gozotasun oro kendu ondoren, hitza eta esanahia geratzen diren bezala deskribatzen dizkigu. Zinikoaren lana, noski.

El Diario Vasco, 2001-07-14